

## Etorkinen aldeko mezua

'Hamaika koloretan  
dantzan' antzerkia ▶ 5



# Erasotu nahi zuten neska «bakean uzteko» dio amak

**TOLOSA** ▶ «Eraso eta mehatxu  
egiteagatik» 14 neraberen aurka  
jarritako salaketa Fiskaltzak dauka

**AMA** ▶ Nerabeek erabilitako  
«indarkeriagatik» harrituta  
dago neskaren ama ▶ 3

## Europako Konstituzioa ez du nahi ekimenak

Ezetzaren arrazoiak  
agertu dituzte ▶ 6

## Mendiko eskiko probetan goi mailan ari da Joseba Ormazabal tolosarra

**TOLOSA** ▶ Euskal Herriko Txapelketa irabazi  
ondoren, igandean, Espainiakoan, lehen  
hamarren artean bukatzea du helburu ▶ 2

## Euskal presoen inguruko mozioa onartu du Udalak

Estatus politikoa eta Euskal Herrira  
ekartzea eskatu du EAJ-EAK ▶ 4

## Aurrera futbol taldeak garaitezin jarraitzen du bigarren itzulian ▶ 7

HITZA



Inauterietako argazki  
bilduma...

Zure argazkiak bidaliz gero,  
gure web orrian azalduko dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)



GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Kirolariok ere ezetza Europako Konstituzio honi

Hegoaldeko euskal herritarrok Europako Konstituzioa erreferendumean bozkatzeko aukera izango dugu otsailaren 20an. Eta kirolari eta kirol eragileok ere gure iritziz xumea azaldu nahi dugu.

Ez dirudi gaiak halako ikusmin sortu duenik euskal gizartean; urrutu samar, agian. Eta aurrezagoko lanik badugu etxean, gainera. Baina, hemen daukagunez, eta hiritar zintzo, leial eta ardurasu garenez, bozka emateko eskubidea erabili egin beharko dugu, ezta?

Baina, benetan, ba al dakigu

zer bozkatuko dugun? Ba al dakigu Europako Konstituzio honek zer ondorio ekarriko dion Euskal Herriari, Hegoaldeari zein Iparraldeari? Ba al dakigu kirol arloko nazio-ordezkaritzari buruz zer dioen Europako Ituna deituriko honek? Eta beste hamaika «ba al dakigu?» erants ditzakegu.

Ez da erraza 1.000 orrialde inguru dituen Ituna irakurtzea, baina beronen «laburpenak» edota aditu batzuen iritziak jarraitu ostean, iritzi bat izateko adina informazio, badugu.

«Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu» dio gure esaera zahar batek. Ez zuen arrazoi faltarik. Eta eskarmentuak zer baitetarako balio behar liguke.

Europako Batasunean egoteak mesede baino kalte gehiago eka-

rri digu euskaldunoi, bai ekonomian, bai politikan. Eta baita euskara, kirola eta abarretan ere; edota, kasurik onenean, lehen bezalaxe gaude.

Europako Konstituzio hau marjor juridiko, politiko, kultural, sozio-ekonomiko... zehatz eta itxi batean kokatu behar da. Europako Batasuneko (EB) estatukideen arteko Ituna da. Eta jakina, hemen, gurea bezalako estatuk gabeko nazioek oso aukera gutxi daukate, Estatuak izango baitira aurrerantzean ere egiteko eta desegiteko eskumena izango duten ahalguztidunak, orain arte bezalaxe. Beraz, hanka-sartze handirik egiteko beldurrik gabe, suma dezakegu gauzak ez zaizkigula guk nahi bezala etorriko, ez politikan, ez ekonomian, ez kulturean,

ez kirolean, eta ezta gizarte mailako arlo gehienetan ere.

Azken egun hauetan, urrutira joan gabe, Euskadiraiko Estatu Berriaren eztabaida bizia bezain interesgarria jarraitzeko aukera izan dugu Espainiako Gortean. Estatu Berri horrek Espainiako Konstituzioa aldatzea omen dakar. Hori dela eta, denok ikusi dugu nazionalista espainiarren jarrera, Espainia bat eta zatiezina dela, hitzetik hortzera, ozen aldarrikatuz; eta Plan horrek aurrera eginez gero, mehatxu eginez, gainera. Hori da Espainiako Konstituzioa; eta neurri handi batean, Europako Konstituzioa ere horixe izango da.

Kirolari eta kirol eragileok ondo baino hobeto dakigu nork ukatzen digun euskal kirolariok na-

zioartean Euskal Herria ofizialki ordezkatzeko eskubidea. Espainiako eta Frantziako Konstituzioek, alegia, Ondorioz, Europako Konstituzio honek, hori ez onartzeaz gain, ez digu onartua izateko aukera txikiarik ere ematen, ezta emango ere, urte luzeetan, bederen; besteak beste, kirol mailako eskumen osoa Europako Batasuna osatzen duten estatuena dela esaten duelako. Honegatik guztiagatik, eta beste hamaika arrazoiengatik; egon badaudelako, kirolari eta kirol eragileok ezetza esango diogu Europako Konstituzio honi.

MIKEL UZKUDUN, IXABEL SALABERRIA,  
KOLDO ARSUAGA,  
KARMELE BEGRISTAIN,  
RAMON EGIGUREN ▶ TOLOSA

JOSEBA ORMAZABAL ▶ EUSKAL HERRIKO TXAPELDUNA MENDIKO ESKIAN

# «Urtetik urtera hobeto moldatzen gara eta goraka noa»

### Euskal Herriko Txapelketa irabazi ondoren, igandean Espainiakoan lehen hamarren artean gelditzea du helburu

JOXEMI SAIZAR

Inauterietako Zaldunitan, hemen festan murgilduta geunden bitartean, Joseba Ormazabal tolosarrak Mendiko Eskiko Euskal Herriko IV. Txapelketa jokatu eta irabazi zuen Luz Ardidenen. Asteburu honetan beste garaipena lortu du Formigalden.

**Nola hasi da aurtengo denboraldia?**

Ondo. Denbuan hasi nuen, Andorrako kronoeskaladan 8. izan nintzen, gero urtarrilean Candanchun gauez egin zen proban bigarrena izan nintzen, Cèrlerren Espainiako Koparako puntuagarria zen proban 10.a izan nintzen eta Astunen Koparako beste proban 8.a.

**Dena den, ez zara eskualdeko bakarrik mendiko eskiko probetan.**

Ez, Joseba Tobar tolosarra eta Unai Aizpuru ibartarra ere ari dira parte hartzen. Tobar laugarren izan zen Euskadiko Txapelketan eta Aizpuru 13.

**Nola joan da Euskal Herriko Txapelketa?**

Txapelketarekin batera Frantziako eta Aragoiko eskiatzaile batzuk ere parte hartu zuten

proban. Hasieratik frantziar bat eta aragoiar batekin jarri nintzen aurrean. Bigarren igorarik aragoiarrekin bakarrik gelditu nintzen aurrean, beraz, txapela nirea zela garbi ikusi nuen. Iza karrera osoa hala egin genuen, nahiz eta teknikoki ez ondo ibili, aldatketan —foka larruak kendu, fijazioak mugitu— denbora asko galdu bainuen. Azken jaitsieran tartea atera nion, baina atzera begiratu eta frantziarra zetorrela ikusi nuen. Hamar metro falta zirela aurreratu ninduen eta berak irabazi zuen lasterketa, nahiz eta Euskadiko txapeldun ni gelditu. Amorrut eman zidan.

**Aurten iaz baino hobeto zabil-tza. Zer dela eta?**

Lanarengatik orain entrenatzeko eta atsedean hartzeko denbora gehiago daukat. Pello Gorostegik prestatzen dit entrenamendua. Aurten aldatu egin dit eta hobeto dihoakit. Urtetik urtera hobeto moldatzen gara eta goraka noa. Aurten indarra gehiago landu dugu, gimnasioan pesak egiten. Gero korri egiten dut asko eta rolleski, batez ere Urkizura igotzen. Bizikleta ere egiten dut, erresistentzia lantzeko egokia da.

**Zein da zure punturik onena?**

Indarra. Igoeretan ondo moldatzen naiz. Jaitsieretan teknika gehiago behar da. Baina hobetzen ari gara.

**Igandean Formigaleko proba irabazi zenuen. Nola joan zen?**

Arraroa izan zen. Haize handia zegoen eta 1.900 metroko desnibela eta lau igoera izan beharrean igoera bakarrekoa izan zen, bi ordu inguru izan beharrean, ordu erdikoa.

**Zein duzu hurrengo helburu nagusia?**

Igandean, Baqueiran, Espainiako Txapelketan lehen hamarren artean edo sartzea. Iaz 19.a izan nintzen. Denboraldi osoa horri begira prestatu dugu, aste honetan punturik onenaren egoteko. Azken hiru urteotan Manu Perez segoviarrek irabazi du eta bera da faboritiko nagusia.

**Atzerrira joan zara. Aurten ba al zoaz?**

Bai, martxoaren 9tik 12ra Pierra Menta proba da Frantziako munduko ospetsuena. Lehen etapa suabea da, baina besteetan 2.700-3.000 metroko desnibelak daude. Binaka izaten da eta denetatik ateratzen da, adi-



HITZA

neko jendea eta guzti. Nacho Garcia aragoiarrekin noa. Iaz 40.a izan zen eta aurtun lehen 40-50etan sartzea dugu helburu. Joseba Tobar Mikel Navarro urretxuarrekin aterako da. Apirilaren 17an Mezzalama izango da Italian. Hau egun bakarrekoa da eta hiruak egiten da, baina 4.000 metroko desnibela du. Duela bi urte bederatziko ordu behar izan nituen bukatzeko.

**Zein beste proba duzue hemen?**

Martxoaren 5-6an Regil proba, 20an Val Louron eta apirilaren 3an Gourettekoa eta Espainiako Txapelketa binaka. Ez dakit oraindik norekin hartuko dudana parte.

**Aurten nahiko elurra ari garazaten inguruan.**

Bai, Aralarrera eta Leitzaldera entrenatzera joateko probe-

txatu dut. Elurra gertu dugunean aprobeatzen behar da. Bestela, normalean pistetara joaten gara. Eta horiek urrutia daude, asteburuetan bakarrik joan gaitetzeko.

**Azken urteotan gorakada handia ezagutu du mendiko eskiak Euskal Herrian.**

Antxon Bandresen bultzatu du asko mendiko federaziotik. Eta Andoni Areizagak lan handia egin du antolaketan eta beste gaitza askotan. Maila asko hobetu da. Espainia mailan madrildarrak aragoarrak eta katalanak dira onenak, eta harri-tuta gelditu dira gure hobekuntzarekin. Eskertzekoa da baita ere etxe komertzial batzuen laguntza: Aralar Kirolak, Born eta Akaba. Izen-emateak eta bidaiak oso garesti izaten dira eta ondo etortzen da laguntza hori.

GIZARTEA ▶

# Erasotzen saiatu ziren neska «bakean utziko» dutela espero du amak

Ertzaintzak dio «eraso eta mehatxu egiteagatik» jarritako 14 nerabeen aurkako salaketak Fiskaltzaren esku direla jadanik

## IRATXE ETXEBESTE

Ustez 15 urteko neskatila bati «mehatxu egiteagatik» eta hura «erasotzen saiatzegatik» Ertzaintzak Tolosan identifikatu zituen 13 eta 16 urte bitarteko hamalau gaztetxoekin kontrako salaketak Adin Txikiko Fiskaltzaren esku daudela esan dio Hitzari Ertzaintzak. Antza denez, beste nerabe baten etxera joan, sarrerako atea kolpatu eta hari mehatxuka eta irainka ari zirenean identifikatu zituzten ertzainek 14 nerabeak. Itxura guztien arabera, ika-mika («mutil kontuengatik») izan daiteke, eta 14 nerabeak «neskatila erasotzeko asmatan» joan ziren haren etxera.

15 urteko neskatilaren amak jarri du nerabeen kontrako salaketa Ertzaintzaren aurrean, eta, horrexegatik, hemendik aurrera bere alaba «bakean utziko» dutela espero du. Berarekin hitz egin ahal izan zuen atzo Hitzak, eta pasatakoarengatik («urduri») dagoela, baina salaketa jarri izanak («lasaitasuna») eman diola esan dio, salaketak berak nerabe horien jarreran aldaketa eragingo duela uste duelako: «Ez dago eskubiderik; eskolara baka- rrik joateari beldur dio seme- ak, eta alabarekin joan behar izaten du egunero. Hemendik aurrera espero dut alabarekin ez direla gehiago sartuko».

Joan den ostegunean izan zen gertakizuna. Arratsaldean, 19:00ak aldera, Larramendi kaleko etxe batera joan ziren

## INDARKERIA

«Uste nuen atea botako zutela; harrituta geratu nintzen hainbesteko indarkeriagatik, eta polizia deitu nion»

## SALAKETA

Ustez erasotzen saiatu ziren nesken amak jarri du adin txikiko 14 lagunaren aurka mehatxu eta eraso egiteagatik

adin txikiko 14 lagun, «neskak gehienak», ustez, 15 urteko beste neskatila bati «mehatxu egin», eta hura «erasotzeko asmatan»: «Beheko txirinetik deitu, eta, mehatxuka, kalera jaisteko esan zioten nerabeek; alabak ezezkia erantzun arren ez zuten etsi», esan dio 15 urteko neskatilaren amak Hitzari. «Alde egin beharrean, behin eta berriro saiatu ziren alaba kalera jaitsiarazten, eta bakean uzten ez zuten, ni neu sartu nintzen afera horretan: alaba bakean utzeko eta alde egiteko esan nien».

## Kolpe, irain eta mehatxuak

Ustez erasotzen saiatu ziren nerabearen amak esandakoa- ren arabera, une horretatik aurrera «mehatxu handiagoak, gogorragoak» egiten hasi ziren gaztetxoak, eta alabaren kontra ez ezik, amaren beraren eta haren seme gazteenaren —11 urtekoa— aurka ere hasi ziren irainka: «Zure anaia elbarri utziko dugu» eta «zure ama ondo ez dagoela? Bada okerrago utziko dugu» modukoak esan zizkietela salatu dute familia horretako kideek. Nerabearen amak ziatika eta lumbalgia arazoak ditu, Hitzak jakin ahal izan duenez. «Tankera txarra hartzen ari zen, eta handik alde egiteko eskatu nien behin eta berriro, bestelakoan Ertzaintzari deituko niola esanez. Hala eta guztiz ere, joan ez eta eskal- leretan gora igo ziren, etxeko ateraino. Ate joka hasi ziren orduan, eta iseka egiteari eta kolpeak jotzeari ekin zioten».

«Uste nuen atea botako zutela. Harrituta geratu nintzen hainbesteko indarkeriagatik, eta Ertzaintzari deitu behar izan nion», adierazi du. Ertzain- nak minutu gutxiren buruan azaldu ziren eta nerabe guztiak identifikatu zituzten. 15 urteko neskatilaren amak salaketa jarri du nerabeen kontra, «mehatxu eta eraso egiteagatik».

Ika-mikaren arrazoiez galde- tuta, «mutil kontuak» aipatu ditu amak. «Alabak esaten du mutil batengatik dela dena. Ba- dirudi bi neskari —ustez me- hatxuak egin dizkiontena eta

haren ikaskide bat— mutil be- ra gustatzen zitzaizela, eta mutila nire alabarekin hasi zela a- teratzen. Udan hasi zen hau de- na, eta harrezkero bitan era- sotu dute».

Hamalau nerabe horietatik bik 15 urteko nesken ikaste- txe berean ikasten dute, eta ho- rietako bat, «istilua antolatua duena, jangelan geratzen da, alabarekin». Amak dio «harri- tuta» dagoela neskato horrek duen botereaz, «nire alabaren bila etxera etortzeko gazte as- ko bildu dituelako». Bestetik, ikastetxe arduradunek «oso jarrera ona» izan dutela dio, «arazoaren gainean egon dire- lako eta gure egoeraz kezkatu direlako». Ikastetxe horretako ordezkariak «beharrezko di- ren neurri guztiak» hartuko di- tuztela esan dute.

Nerabeen gurasoen deirik, ordea, ez du jaso oraindik. «Uste dut inplikazio handiagoa izan behar dutela guztiak, ara- zoak gertatzen direnean kon- pondu behar direlako; ez irten- biderik ez dagoenean».

ARETO FUTBOLA ▶

# Santurtziri erraz irabazi dio Laskorainek (8-5)

Bikain ekin diote tolosarrek bigarren itzuliari: jokoan ziren 9 puntuetatik 7 eskuratu dituzte

## I. ETXEBESTE

Laskorainek nagusitasunez (8-5) irabazi zion joan den aste- an Santurtziri Berazubín. Batek baino gehiagok beldur zion Laskorainekoen Inauter- ien ostean izan zezaketen bi- haramunari, baina Egizabalen mutilek mozorroak hurrengo urterako gorde eta lan-jantzia jarri zuten «azken urteetan pizti beltza bilakatu den San- turtzi taldea» menderatzeko.

Bigarren itzuliari bikain ekin diote horitxoek, jokoan zeuden 9 puntuetatik 7 esku- ratu baitituzte. Nahiz eta Na- zional A mailara igotzeko txar- tela emango liekeen lehen postua oraindik urrun egon, borrokan jarraitzeko grinare- kin dira ikastolakoak.

Lehenengo zatia oso lehia- tua izan zen eta horren lekuko Laskorainekoen ikusi zituzten txartelak: Barriolak urdina eta beste lau taldekidek hori ba- na. Epailerek ez zuten arratsal- derik hoberena izan eta behin baino gehiagotan eramanarazi zizkieten besoak burura bi taldeetako jokalariei, hartzen zituzten erabakien aurrean desadostasuna ez ezik, harri- dura ere erakutsiz. Kontuak kontu, horitxoek joko hobea

erakutsi zuten lehen 20 minu- tuetan, eta, horren ondorioz, aldageletara bost eta biko «eroso batekin» joan ziren.

Bigarren zatian orekatu egin ziren gauzak eta bizkaita- rrek min dezente egin zieten etxekoei areaz kanpotik egin- dako zenbait jaurtiketaren bi- tartez. Hala ere, lehenengo zat- ian lortutako errenta manten- tzeko ez zuten inongo arazorik izan ikastolakoek, eta nor- gehiagoka zortzi eta bost amaiteza lortu zuten.

Ezin aipatzeke utzi horitxo- en zakua 8 golekin bete zuten goleatzaleak: Saldias kapitai- nak 2 egin zituen; bigarrena zurrumarekin, gainera. Gai- nontzekoek bana sartu zuten: Telletxeak, Yustosek, Jorgek, Ekik eta Altunak. «Azken hori, Txekiar Errepublikatik iritsi berria eta bere printzesak ematen dion edabe miraga- rria dastatu gabe oraindik, ez zen beste norgehiagoka ba- tzueta bezain fin ibili. Hu- rrengo jardunaldirako lurre- ratzea espero dugu». Egizabal entrenatzailea, Javier Saldias delegatua eta Alonso, Altuna, Amatriain, Arregi, Barriola, Domentxe, Saldias, Telletxea, Yustos eta Zubillaga jokala- riak aritu ziren jokatzen.

## IPAR EUSKAL HERRIKO LABORANTZA GANBARA ALTERNATIBOA



Egin zaituzte laguntzaile! aukera hauek dituzte:

- Bete ondorengo fitxa eta faxez bidali zenbaki honetara: 00 33 559 372108
- Bete ondorengo fitxa eta postaz bidali helbide honetara: Euskal Herriko Laborantza Ganbara. 64220 Ainhize-Monjolose (Behenafarroa).
- Bete ondorengo fitxa eta behean sinatzen dugun sindikatuotako ordezkari bati eman.
- Fitxan eskatzen diren datuak posta-e helbide honetara bidali: syndicat.elb@wanadoo.fr

Izen-abizenak .....  
 Helbidea ..... Zk. .... Solairua .....  
 Herria ..... Posta kodea .....  
 Herrialdea ..... Tel. .... posta-e .....

**KONPROMISOA**

2005, 2006 eta 2007an Ipar Euskal Herriko Ganbara Alternatiboari urtean 60 edo 100 euroko diru laguntza emateko konpromisoa hartzen dut/dugu  60 €  100 €

**ORDAINKETA DATUAK**

KONTU ZENBAKIA: ..... Data .....

Banku edo kutxa	Bulego zenbakia	kontrol zk.	Kontua
-----------------	-----------------	-------------	--------

Sinadura .....

EHNE • ELA • LAB • ESK • STEE-EILAS • HIRU • EGAS

## POLITIKA ▶

# Presoen estatus politikoa eta Euskal Herriratzea eskatu dute

Zizurkilgo Udalak mozioa onartu du euskal preso politikoen inguruan

IMANOL GARCIA

Zizurkilgo Udalak *Estatus politikoa alde, euskal presoak Euskal Herrira* izeneko mozioa onartu zuen herenegun egindako osoko bilkuran. EAJ-EAko zinegotziek alde eta PSO-Eko bi zinegotziek kontra bozkatu zuten. «Printzipio humanitarioekin, gizaki ororen eskubide eta askatasunarekin bai herri bezala dagozkigun eskubideen alde gure konpromiso irmoa agertu nahi dugun», adierazten da mozioaren lehen puntuan.

Euskal preso politikoen partaidetzari buruz dionez, «gairontzeko euskal herritarren gisan, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean eta inongo trabarik



Herenegun Zizurkilgo Udalak egindako osoko bilkura. HITZA

gabe parte hartzeko duten eskubidea».

Bestalde, sakabanaketa eta

isolamendu egoerak behin-betiko bukatzeko eskatzen da mozioan, «euskal presoek, eu-

ren etxe eta senide eta lagunengandik hurbil egoteko duten eskubidea berretsiz».

Beste puntu batean adierazten denez, «benetako bake prozesu batean, Espainiako Gobernua eta ETA erakundeak euskal preso politikoen arazari heldu behar diotela, konponbide eta akordioak lortzeko borondate eta ausardiarekin».

Euskal presoen eta euren senideen «aurka ezartzen den zigor gehitua den dispertsio politikaren aurka lan egiteko konpromiso zehatzak hartzeko» prest agertzen da Zizurkilgo Udala onartutako idatzian azaltzen denez. Azkenik, Zizurkilgo etxe guztietara heleraziko da mozioaren testua bando bidez.

## ANOETA ▶

## Bi mintegi egingo dira bihar KZgunean

Anoetako KZgunean tutorea izango da bihar, 16:00etatik 20:00etara, eta bi mintegi burutuko dira. Lehenengo, Adobe Acrobat Reader programaren inguruan izango da eta bi ordu iraungo ditu: 17:00etatik 19:00etara. Bigarrena, ordubeteko, KZguneko foroak eta FAQ-ak jorratuko dira, 19:00etatik 20:00etara. Parte hartu nahi duenak ez du aurretik izana eman beharrik, KZgunera azaldu besterik ez du mintegia hasten denerako.

## IRURA ▶

## Mus txapelketa azkarrak Zaharren Biltokiko tabernan

San Miguel plazan dagoen Zaharren Biltokiko tabernan mus txapelketa azkarrak antolatzen hasi dira ostiralean. 22:30etik 23:00etara eman daiteke izena eta bikote bakoitzak 12 euro ordaindu behar ditu. Banatuko diren sariak ondorengoak izango dira: lehenengoaren tza, arkueta eta bi botila ardo ondu; bigarrenak urdaiazpikoaren besoa eta bi botila ardo ondu jasoko ditu; hirugarrenak bi kaxa otarrainxa eta bi botila ardo ondu eta laugarrenak bi botila ardo ondu jaso ditu.

## LARRAUL ▶

## Abesbatza osatzeko bilera gaur liburutegian

Ondo pasatzeko eta euskal abesti zaharrak kaleratzeko asmoarekin, abesbatza talde bat antolatu nahi da Larraulen. Jendearen partaidetza espero dute antolatzaileek eta bilera batera deitzen dute gaur arratsaldeko 20:00etarako. Liburutegian egingo da bilera.

## IBARRA ▶

## 'Wonderland' filma gaur zine klubean

Asteazkeno bezala, Ibarra-ko Gaztetxean ohiko zine klub saioa gaur 21:45ean. *Wonderland* (*Sueños rotos*) filma izango da ikusgai.

## Eskualdeko lau preso, borrokaldiaren egungo txandan

Euskal Preso Politikoen Kolektiboak (EPPK) borrokaldia egiten ari da estatus politikoa eskatuz eta dispertsio politikaren aurka. Hamar eguneko txandak egiten ari dira presoak eta orain eskualdeko Julen eta Pello Zelarain billabonatarak, Ander Geresta zizurkil-darra eta Iñigo Otazua daude ziegan itxialdia egiten.

Pello Zelarain Alicante II izeneko espetxean dago, Villen. Villabonako Amnistia-aren Aldeko Mugimendua azaltzen duenez, «azkenaldian esan genezake Pelloren gain krudelkeria politika ankerra aplikatzen ari direla. Guzti honen kronika hasteko lehen elementua zera dugu. Teruelgo espetxetik Alacantera urrundua izatea. Gogoan izan behar dugu Pellok seme bat

duela espetxean eta urruntze honek bere senitartekooi oso modu krudelean eragiten digu».

Bisitak astegunetan goizeko zortzietan ematen dizkiete eta ez dago garraio biderik ordu honetarako espetxean egotea ahalbideratzen duenik. «Honen ostiralean lana galdu behar izateaz gain, autoa da bide edo modu bakarra bera ikusnera joan ahal izateko eta bi gidari behar ditugu bertara joan ahal izateko», azaltzen dute. «Emazteak ez du gida baime-rik eta oraingoz hainbat herritar antolatzen ari diren sare bati esker joan ahal gara bisitetara».

Bestalde, bisean biseoak lortzeko ere arazoak dituzte. «Urriko bisean biseoak, esaterako, egin gabe geratu da,

erantzuna 'ez da egokia' besterik gabe izan da».

Zelarain espetxe honetara iritsi orduko isolamendu moduloan sartu zuten eta bere senitartekoak denbora luzean egon ziren berririk izan gabe. Modulu normalera eraman ondoren ere, «ez du beste euskal presoekin egoteko aukerarik ez bada leihotik leihora ohiu-ka». Amnistia-aren Aldeko Mugimendua dioenez, «azken gertakari larria, euskaraz hitz egiteko debekua izan da. Antza, idatzi bat jaso du Instituciones Penitenciariasetik esanez arriskutsua denez, telefonoz eta komunikazioetan erdaraz aritu behar duela».

Oscar Zelarain billabonatarra Sainte Genevieve des Bois Cedex herriko Fleury Merogis espetxean dago egun. «Esan

genezake 2003. urte hasieran izan ziren gora behera haiek guztiak gaitituak direla eta uneotan egoera nahiko antzekoa izanik ere giroa lasaiagoa dela», azaltzen dute Amnistia-aren Aldeko Mugimendutik. «Ez dago *mitard* edo zigor ziegatan euskal presorik eta bisitak egiteko zeuden trabak ere gaitituak dira».

Azkenaldian, baina, bisitan gora behera handiak izaten dira. «Azken bisitan, esaterako, bere neska laguna atxilotua izateko arriskuan izan zen polizia frantziarrak susmoak zituela eta. Guzti hau gogoratu behar da euskal presoek egin zuten borrokaldi luze eta gogor baten ondorioz izan zela eta bertan oinarri batzuk besterik ez ziren lortu», diote presoen aldeko mugimendutik. ◀

**SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA**

KALITATEZKO D EREDUA IRAKASKUNTZA

**SAMANIEGO** IRAKASLEZ

- ✓ HAUR HEZKUNTZA
- ✓ LEHEN HEZKUNTZA
- ✓ DBH
- ✓ BATXILERGOAK
- ✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63 943 65 13 87

**Uzturpe Ikastola** (3-16 urte)

**ATEAK ZABALIK EGUNA**

**ZATOZI!**

- Eguna: 2005ko otsailaren 17 a
- Ordua: 18:00
- Programa:
  - Bideo emanaldia
  - Antolaketa eta proiektuak
  - Gelen erakusketa

**Uzturpe Ikastola**  
Egalde, 2-IBARRA • Tel.: 943671299  
ibarra@ikastola.net

ALTZO ▶ ANTZERKIA



Umeek primeran igaro zuten arratsaldea antzerkian. NOELIA LATABURU

# Kantuan, arrazakeria garaituz

'Hamaika koloretan dantzan' antzerkiak gazte ugari bildu zituen atzo

NOELIA LATABURU

Zenbat Gara elkartearen eskutik, *Hamaika koloretan dantzan* antzerkia eskaini zuten atzo, arratsaldeko 17:00etan. Altzoko Ertotxen. Berezi gaztetxo-  
ei zuzendutako antzerkian dantza, abesti eta txontxogilo emanaldia egin zuten.

Etorikinei buruzko antzerki musikal honen bitartez, arrazakeriaren aurkako eta integrazioaren aldeko mezu argi bat zabaldu nahi izan zen bertaratuaren artean, abestien, dantzen eta algaren bitartez. Ikuskizuna ikustera herriko gazteak izan ziren gehienbat.

Antzerki honen protagonistak Ane Mona, Oskola eta Karramarroi, Euskal Herriko haur guztien maskotak, dira. Hauek Kantauri Itsasotik heltzen dira eta bertako umeak ezagutu ondoren, beraiekin bizitzen gelditzea erabakiko dute eta hamaika abentura izango dute.

Antzerkia elurtea dela-eta bertan behera geratu zen urtarriaren 25ean, baina atzokoan ez zen aitzakiarik izan eta etxeko txikienek primeran pasatu zuten arratsaldea antzerkiarekin dantzatzu eta abestuz. Zenbat Gara elkarteak euren CD-ak eta DVD-ak ere salgai jartzeko aprobeztatu zuten.

ALEGIA ▶

## Etxebizitzen eskaera lantzeko enpresa

Alegiako Udalak etxebizitza politika aztertzerako garaian, ezinbestekoa ikusi du herriko etxebizitzaren beharra eta eskaria eazgutzea. Horretarako enpresa berezitu bat kontratatu du, galdetegi baten bitartez informazioa jaso ahal izateko. Gai honek eragiten dien herritarren parte-hartzea eskatu du Udalak eta horretarako gaur izango dute alegiarrek udaletxean izena emateko azken aukera.

ALTZO ▶

## Tecasa-koek ez dute grebarik egingo

Altzoko Tecasa enpresako langileek hiru egunetako greba bertan behera utzi dute. Grebarako arrazoia enpresako bi langileen kaleratzea izan zen, baina azkenean enpresa eta langileak akordio batera heldu dira. Besteak beste, kalera-tuei indemnizazio ekonomikoa emango die enpresak eta lan egiteko kanpora joateko irteerak gutxitzen saiatuko direla adierazi du.

ALTZO ▶

## Eskolako gela bat, umeentzako jolas gune

Etxeko txikieneztako aukera zabaldu eta liburutegiak bere funtzioak berreskura ditzan, Ertotxeko eskolako psikomotrizitate gela erabiltzen da umeentzako jolas gune izateko. Orain arte udal liburutegiak ludoteka zerbitzua egiten zuen, baina orain bere funtzioak berreskuratu ditu. Umeei zuzendutako bi guneen orduetgia 16:30etik 18:45era izango da eta gune bakoitzak bere araudi partikularra izango duela esan du Udalak.

ALEGIA ▶

## Euskal dantza ikastaroko izen-ematea zabalik

Alegian euskal dantza ikastaro antolatuta da, otsailaren bukaeratik aurrera. Izen-ematea hil honen 18a baino lehenago egin beharko da Ixkiña, Hilario-enea, Jubilatu-enea eta Etxeberria-enea tabernetan ezarri diren zerrendetan. Ikastaroa oinarritzakoa izango da, euskal dantza ez dakiteneen gazteei zuzenduta. Helburu nagusia, beraz, ikastea izango da, gerora festetako taldea osatzea bada ere.

BALIARRAIN ▶

## Mus txapelketa herrikoia sariak banatu zituen

Igande honetarako tute txapelketa antolatu du Harkaitz elkarteak herrian

N. LATABURU

Harkaitz elkarteak antolatu dituen mus, tute eta puntu txapelketa herrikoiak hasi dira dagoeneko. Lehenengo, mus partida, asteburu honetan jokatu zuten, elkartean bertan.

Lehendabiziko sei bikoteak izan ziren sarituak. Urrezko saria Maria Rosario eta Bixente bikoteak eskuratu zuten. Beraiantzat izan zen arkume bat, bi txanpain botila eta bi bonboi kaxa zeramatzen saskia. Bigarren sailkatuak *Misae* eta *Irosi* izan ziren eta arkume bat eta bi txanpain botila eman zituzten etxera. Hirugarren postuan, berriz, Dionisio eta Juantxo sailkatu ziren, eta euren sariak bi oilasko eta bi txanpain botila izan ziren. Laugarrenak, berriz, Martzelino eta Juantxo izan ziren eta, horri esker, bi txuleta eta bi txanpain botila lortu zituzten. Bikote honen atzetik Miren eta Migel Anjel sailkatu ziren eta bi untxi eta bi ardo botila izan zituzten sari. Seigarren eta azken postuan eta bi bonboi kaxa eraman zituen bikotea Julianek eta Bartolok osatutakoa izan zen.

Igande honetan, Baliarriaren, txapelketako bigarren partidak izango dira, arratsaldeko 16:00etan. Oraingo honetan tute jokoan ariko dira partaideak eta sariak ere lehendabiziko sei bikoteentzat izango dira eta berberak izango dira. Parte hartu nahi duen guztiak sei euro ordaindu beharko ditu. Hamabi euro bikoteko, beraz. Txapelketarekin amaitzeko otsailaren 20an puntu txapelketa izango da.



Langileen protestak. N. LATABURU

LEABURU ▶

## Gaur tutorearen bisita izango da KZgunean

Gaur arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara Leaburuko KZgunean tutorearen bisita eta mintegia izango da. Mintegiaren gaia Kutxanet izango da, hau da, interneten bidez norberak bere kontu lalburpenak mugimenduak eta bestelakoak kontsultatu ahal izatea. Leaburuko KZgune hau astearte eta ostegunetan izango da zabalik, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Goizetan, berriz, giltza eskatu behar da udaletxean.

**TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA**

FORMAKUNTZA IKASTAROK (Langileentzat) 2004/05  
KUALIFIKAZIO PROFESIONAL EN SISTEMA – KATALOGO MODULARRA

IKASTAROA (KREDITO FORMATIBOA)	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Fresadora prestatze programazioa CNC	46	2005-02-16	18 - 21
CAD 2D (AUTOCAD 2005) (maila aurreratua)	40	2005-02-16	18 - 21
*Ziklo Formatiborako sarrera frogarako prestaketa*	120	2005-02-17	18 - 21
Segurtasuna mekanika industrietan	40	2005-02-21	18 - 21
NEUMATIKA-Automatismo neumatikoa eta elektroneumatikoak	40	2005-02-21	18 - 21
HIDRAULIKA sistema automatikoak	30	2005-02-21	18 - 21
Automatismo elektrotreknikoak (KUADRO ELEKTRIKOAK)	40	2005-02-21	18 - 21

Matrikula eta informazioa: Tel: 943 65 11 47 • Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSALDEA  
E-mail: idazkaritza@tolosaldea.com • Web: www.tolosaldea.com

**hirukide**  
KALITATEZKO HEZKUNTZA  
www.hirukide.org

GUTUN@K ▶



izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Ibarraren lehentasunak noizko?

Ibarrako bi herritar garen aldetik publikoki gure kezka eta ezintasuna azaldu nahi dugu behingoz.

2004ko azaroan idatzi baten bidez gure kezka edo kexa udaletxeari igorri genion. Beran igandeetan kirol gunea erabiltzeko ezintasuna eta herriko plazan zabaldu ezinik ditugun komun inguruko kezka adierazi genuen.

Abenduaren 28an honako erantzuna jaso genuen: «...zuen iradokizunak esker-tzea beraien positibotasunarengatik, baina Udalaren le-

hentasan ekonomikoek ez dute bere eskaera aintzat hartzerik uzten». Erantzuna benetan bada kuriosoa bezain sinplea ezta! Bost mila biztanle-tara ailegatzen ez den herri batean igandean kirolgunea eta plazako komuna ez irekitzea ez dela lehentasunetako bat esatea benetan parregarria eta iraingarria dela diogu eta are gehiago, bestelako lehentasunak ezagutzen ez badugu.

Plazako komunaren ordezkoa zein da? Parke, udalaxearen pareta edota zuhaitzaren inguruan pixa eta kaka egitea? Sinistu ezazue, Ibarrako plazan egun, komunaren beharra ezinbestekoa da.

Igandean kirolgunearen erabileraz (Ibarran gune esta-

lirik ba al dago bestela?) eztabaida serioa egin beharko da. Erabat irekitzea, (kiroldegia eta frontoia) posible ez bada, frontoia edo pista estalia bakarrik ezin al da ireki? Edota, goizteko txandan sikiera? Edota frogatzen egin eta ondoren aztertu? Edota herritarren borondateko laguntzeko jarraia aintzat hartu eta irtenbideen bat bilatzen saiatu? Edota...

Igandeetako lehentasuna ez bada herrian dagoen kirolgune estali bakarra zabaltea, pentsatu nahi dugu besteren bat martxan izango duzuela. Guk ez dugu ezagutzen.

Edo, irtenbidea, gure seme-alabak hartu eta inguruko frontoitara joan eta toki nahikorik ez dagoelako, bazter ba-

tean aritzea al da? Zoritzarrez edo zorionez gure Ibarra honetan eurria eta hotza igande askotan egiten du.

Jakin, guraso talde bat prest egon gaitzkeela uzolan modura hainbat ardura hartzeko gure seme-alabek eta guk geuk, kirol gunea erabiltzeko, betiere zuen lankidetzarekin eta posibilitate errealean baitan. Hori bai, lehentasun bezala marka ezazue eta lehenbailehen.

Zerbitzu publikoa izan dadila herritarrentzat eta egunero ahal dela. Herritar batzuek *dirua* ez, baina zerbaiteko borondatea (ardura batzuk barne) jarriko dugula ziur izan. Eta zuek?...

MANUEL TOBIAS,

IZASKUN APEZTEKXEA ▶ IBARRA

IBARRA ▶ POLITIKA

# Konstituzioari ezetz esateko arrazoiak eman ditu ekimenak

## Datorren igandean bozkatuko den Europako Konstituzioak Euskal Herriaren nahiak ez dituela «aintzat hartzen» diote



Atzo, Ibarrako kultur etxean Ezezoaren Aldeko Ekimenak emandako prentsaurrekoa. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Atzo arratsaldean Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean eman zuen prentsaurrekoa Uzta herri plataformatik sortutako Ezezoaren Aldeko Ekimenak.

Hain zuzen ere, datorren igandean egingo den Europar Itun Konstituzionalari buruzko galdeketa ezetz esateko arra-

zoiak eman zituen ekimen honen, «Europar Itun Konstituzional honek ez baitu inolaz aintzat hartzen euskal herritarren eta Euskal Herriaren nahiak».

Azken europar hauteskunde ere egin zuten erreferentzia atzo; HZk arrakasta handia lortu zuela, baina partaidetza oso urria izan zela eta partaidetza eskas hori Europar Batasunaren eraikuntza prozesuaren

isla baino ez zela azaldu zuten, eta «hiritarroi bizkar emanez ari dela Europa eraikitzen». Baina horren gainetik, euskal herritarrek HZ saritu zutela hiru arrazoi nagusierengatik adierazi zuten: abertzale ezker-tiarren bilgune izateagatik, hitzetatik haratago Euskal Herria herri gisa jokatzeko gai dela demostratzeagatik eta azkenik estatu buruek eraikitzen ari di-

ren Europa honi ezezo borobila esateagatik.

Igandean egingo den herri kontsultan ezetz esateko arrazoiak eman zituen Ezezoaren Aldeko Ekimenak: «Estaturik gabeko nazioak desagertu eta hiltzera kondenatzen dituelako Europar konstituzioak», bategatik, «Itun konstituzional honek hizkuntza eta kultura dibertsitatea ukatzen duelako, hau da, Europako milioika herritarren hizkuntza eta kultura eskubideak urratzen dituelako», bategatik.

Bere lurraldean bizi diren herritar guztien eskubide sozialaren aitortzea ez duelako jasotzen eta egun indarrean dauden hainbat lorpen sozial jasotzen ez dituelako ezetz esaten diotela Itun konstituzionalari argudiatu zuten. Gainera, ez duela herritarren parte-hartzea ziurtatzen azaldu zuten.

Ezetz esateko beste argudioen artean, «konstituzioak ez duela genero parekidetasuna jasotzen, eta beraz, genero diskriminazioa aukeratzen duela», gehitu zuten. Era berean, ez dituela ingurumena ez eta kontsumitzaileen eskubideak bermatzen azaldu zuten ekimenak.

Bestalde, «konstituzioak estrategia armamentistiko eta militaristari erantzuten dio; segurtasunaren, justiziaren eta askatasunaren izenean, oinarriko askatasunaren mugatzea ekarriko du»; eta amaiteko, «konstituziorako testuak etorkinak ukatzen dituelako pertsona eta langile gisa» ezetz esango duela igandean egingo den europar itun konstituzionalari buruzko galdeketa Ezezoaren Aldeko Ekimenak adierazi zuen atzo egin zuten prentsaurrekoan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaledea.** Medikua: 65 23 39  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29  
**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
▶ San Esteban: 00 68 00  
▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)  
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
▶ DYA: 67 25 36  
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
▶ Ertzaintza: 53 88 20

**Villabona-Aiztondo.**

Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur.** Iturrioz, I. Euskal Herria 3 (Ibarra). 943 67 09 15  
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza). 112

**TOLOSALDEKO HITZA**

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
tolosaldean\_publico@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aiztondo.** 687 41 00 22.  
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaledea.** 687 41 00 22  
anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
alegjialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzalde.** 687 41 01 18.  
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Emakumezkoa.** Neska edo andre bat behar da urne bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 635 700 936 (arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara).

**SALGAI**

**Furgoneta.** Furgoneta Renault Kangoo Mixta 1.9 diesel salgai. 6 urte. Telefonoa: 649 51 18 70.

**Etxea.** Iruran duela gutxioko eraikuntza oso etxe polita salgai. 3 logela, berokuntza, eguzkitzua. Dena kanpoaldera. Ernio inmobiliaria: 943 65 50 37.

**Ezkon soinekoa.** Hannibal Laguna diseinatzailearen ezkon soinekoa salgai. Telefonoa: 615 72 91 99.

**GALDUTAKOAK**

**Txakurra.** Ibarran txakurra galdu da. Braco marroi iluna. Dic izena du. 620 20 14 13 (Ibarra).

LEITZA ▶ KIROLA

# Garaitezin izaten jarraitzen du Aurrerak bigarren itzulian

Bidezarraren zelaietan, Antsoainen, lortutako 2 eta 3ko garaipenarekin itzuli dira

JAIONE ASTIBIA

Halaxe da, bada. Aurrera futbol taldea beste garaipen bat zakuaz zuela itzuli zen Antsoaindik, hango Bidezarra taldearen aurka jokaturako partiduan 2 eta 3ko emaitza eskuratu ondoren. Beste hiru puntu gehiago, Lurraldeko lehendabiziko taldean, sailkapeneko aurreneko lekuari eusteko.

Oso partidua gogorra izan omen zen larunbatean jokatu zutena, ez, ordea, futbol kontuengatik, aurkariek egin zuten joko moduagatik baizik: «Oso zikin jokatu zuten eta gogor. Partidua edozein moduz irabaztera ateratu ziren talde an-

tsoaindarreko jokalariek. Une batean talde hartako prestatzaileak berak 'behar bada, burua ere zapaldu' esanez, xaxatu zituen bere jokalariek eta partiduko epaileak deus ere ez ziola esaten ikusita, guk gerok ixilarazi genuen», adierazi zioten atzokoan HITZARI Aurrera futbol taldearekin zelai guztietara joaten diren batzuk. Epailearen «ez-gaitasuna» ikusita, aurreratarrek ahal zuten moduan defendatu omen zuten beren osotasuna, «aldi pare batez, gerok ere jokaldi zakar samarrak egin genituelarik», aitortu zuten. Joko modu gogor horren adierazle izan zen, luzapeneko denbora,

15 minutu gehitu baitzizkion epaileak partiduari, hainbeste geldialdi eta mozte izan zituzenez.

Haserretzeko eta arerioari hankak haustera ateratzeko ez, kirola egitea omen da eta kontua, ez irabaztea, diotenez, baina ardura pixka batekin jokatzeko arrazoiak izan zitzaizketen etxekoek, 1 eta 3koa aurka zutela ikusita. Arangoak, Urtiaga (Jabik) eta Olanok egin zituzten Aurrerako golak. Hirugarrena penaltiz. «Hau ez zen hala izan, baina aurretik izan zen batean ez zuen halakorik adierazi epaileak», argitu nahi izan zuten Aurreratik eta, noski, aukera baliatu zuten. Ondo-

ren etxekoek bigarrena etorri zen.

Partidua bukatzeko 20 minutu falta zirela, epaileak, Aurrera taldeko Bengoetxea (Iker) zelaitik kanporatu zuen, baloi baten bila Bidezarreko beste bat eta berak salto egin eta behe-erontzean «nahita», partiduko partean epaileak idatzi zuenaren arabera, «ukabildak eman ziolako». Aurrerakoak nahiz ados ez egon, adierazi zuten federazioaren zain daude, akaso jokalariei zigoren bat jarriko diotela.

Partidua irabazita itzuli zen herrira, bigarren itzuli honetan jokaturako guztietan bezala eta horrela jarraitzekotan dira.

GIZARTEA ▶

## Gozamenez-en web-orriaren sustapenerako lehiaketa

Gazteen artean sexualitateari buruzko programa honen berri hedatzea du helburu

J. ASTIBIA

[www.gozamenez.com](http://www.gozamenez.com) web-orriagazteen artean ezagutzera emateko asmoz, Gaztedia eta Sexualitatea programako partaideek jarri horren diseinu lehiaketa jarri du abian eta lanak aurkezteko deialdia egin.

Programa honen bidez, gazteei zuzenduta, sexualitatearekin eta sentsualitatearekin zerikusia duten hainbat jardura egiten dituzte: ikasgeletan lantzeko tailerak, ikuskizunak... alde batetik eta arestian aiatu den web-orriaren bidezko jardura elkarrengatik besteak beste. Hain zuzen ere, gazteen artean azken horren hedapena egitea du xede lehiaketa honek, bere horren diseinua ere gazteen esku utzi, zuzeneko parte hartzearen bidez.

Hilaren 25erako aurkeztu beharko diren lanek, «deigarri» izan beharko dute; programaren muina isladatuz, web-orriaren sartzeko dena bere horren atal desberdinetan nabigatzea eta jardura elkarrengatik parte-hartza gonbidatu beharko du; programa honen hedatze estrategia ere diseinatuta izan beharko du. Hiru lan hoberekin sariak lortuko dituzte.

Lanak, gutxienez 6 lagunek osatutako taldeetan aurkeztu daitezke, 15-30 urte bitarteko gazteak izanik eta Nafarroako Gazte Kontseiluaren egoitzan aurkeztu behar dira. Informazio gehiago: 948 177 244; 948 234 819; 948 198 334; 848 422 598.

## Ezetzaren aldeko ekimeneko hitzaldia

LEITZA ▶ Igandean eginen den Europako Konstituzioari buruzko galdeketa, ezezko bozkatzeko arrazoiak aurkeztu zituen Patxi Urrutia hizlariak, ostiralean. Konstituzio horren egitean Europako zazpi lagun boteretsuenek bakarrik parte hartu zutela eman zuen jakitera eta, oinarri horrekin, multinazionalen menpean egonen den Europa eta gizartearen balio eta lortutako eskubideak erabat zapuzten dituen Europa ekarriko dituela nabarmendu. J. ASTIBIA



iragarki laburrak ▶



**Tolosa.** Gudari kalean, Samaniegorekin iskina egin, 110 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Kanpora begirakoa, eguzkitsua, igogailuarekin. Berrikuntza behar du.

**Tolosa.** Gernikako Arbola kalean, 155 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Erabat kanpokaldera. Berritzekoa. 669 36 89 94

**Tolosa.** Santa Klara kalean, 90 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Berritua, atzekaldean baratza partikularerako lur

sailarekin.

**Tolosa.** Enperadore kalean, eraiki berria den 75 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza.

**Tolosa.** Zabalarreta kalean: 135 m<sup>2</sup> erabilgarriko etxebizitza, trasteleku, garaje bikoitza aukeran.

**Gaintza (Nafarroa).** Berrikuntza behar duen hiru solairuko baserria salgai.

**Andoain.** Kanpokaldera begirako etxebizitza, igogailuarekin, eguzkitsua, 75 m<sup>2</sup>.

**Ibarra.** 95 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza, kanpora begirakoa, oso eguzkitsua, orientazio bikaineko ikuspegiak.

**Donostia.** Colon pasealekuan, berrikuntza etxebizitza, 104 m<sup>2</sup>, ikuspegi bikainak.

**Donostia.** Rodil Zeharbidia, kanpora begirako apartamendua, berrikuntza. 669 36 89 94

**Belauntza.** 1.060 m<sup>2</sup>-ko pabilioa, erabat argitsua, garabiarekin.

**Belauntza.** 225 m<sup>2</sup>-ko pabilioa

alokeran, argitsua, argi instalakuntzarekin eta urarekin.

**Lizartza.** 14.000 m<sup>2</sup>-ko pabilioak, 320, 400, 352 eta 922 m<sup>2</sup>-ko moduluak, eraikuntza berrikoak.

**Ibarra.** 75 m<sup>2</sup>-ko pabilioa eta nekazaritza eta abelzaintzako ustiatetarako 2.500 m<sup>2</sup>-ko lur-sail osoa salgai.

Saltzeko eta alokerarako lokal komertzialak baditugu (Gorosabel, lurre, Nagusia, Larraemendi, e.a.)

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 16a, asteazkena ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN  
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kaltetzailetza, Adura, Abitor, Alege, Alkiza, Altxo, Amerieta, Aroeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspegi, Itzi, Larrin, Leizola, Lizaso, Oihenitz, Oñena, Tolosa, Villabona, Zuzuki  
bestenik: Leizaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

Eusko  
Jauraritzako  
Kultura Saila

GAURKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

6

hotzena

5

BIHARKO  
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA  
ARALARREN



Guardetxe: bai  
Albi: bai

Pagomari: bai  
Igaratza: bai

HITZA-KO BEZEROEN  
ARRETA ZENBAKIA  
(zalantzak, harpide egiteko...)

943

30 43 46

## AGENDA ▶

### DEIALDIAK

**Amezketeta.** Korrika Batzordearen bilera gela polibalentean bihar 20:30ean.

**Leaburu.** KZguneko tutorearen bisita 16:00etatik 20:00etara eta Kutxanet mintegia 16:00etatik 18:00etara izango da.

**Tolosa.** Eskualdeko Korrika batzordea bilduko da AEK-Arramelen (Kale Nagusia 12, 2. pisua) 20:00etan.

**Tolosa.** Dima-Areatza mendi irteera igandean. Izen-ematea, Alpino Uzturre elkartearen (943 65 27 89). Aizkardikoez antolatuta **Villabona.** Urduña-Garobel Artziniega mendi irteera igandean. Izena emateko deitu 943 69 44 58ra.

### ZINE-KLUBAK

**Ibarra.** *Wonderland* filma Gaztebixean gaur 21:45ean.

**Tolosa.** Carlos Sorin-en *Bombon, el perro* filma. Bihar 21:30ean Leidorren.

# Film baterako musika

**TOLOSA ▶** Iurreamendi egoitzako kaperan grabatu du Et Incarnatus orkestrak 'Reinas' filmerako musika; kaperaren sonoritatea asko gustatu zaie teknikariei

JOXEMI SAIZAR

Igande arratsalde osoan, zortzi orduz, harizko orkestra baten musika entzun ahal izan zuten Iurreamendi egoitzako kaperan. Miguel Zeberio tolosarrak zuzendutako Et Incarnatus orkestra zen, Manuel Gomez Pereirak zuzendutako *Reinas* filmaren musika grabatzen aritu ziren. Homosexualen arteko ezkontza kolektiboaz tratatzen duen komedia korala da eta martxoaren bukaeran estreinatuko da, Espainiako Gobernuak homosexualen arteko ezkontza baimenduko duen garaian gutxi gora behera. Carmen Maura, Veronica Forque, Mercedes Sampietro, Marisa Paredes, Jorge Perugorria, Unax Ugalde eta Gustavo Salmeron aktore



Et Incarnatus orkestrako kideak igandeko grabaketan. J.SAIZAR

ezagunak dira protagoniste-takunak batzuz.

Ordu eta erdiko filmerako 45 minutuko musika konposatu du Bingen Mendizabalek. «Presakako lana izaten da. Filma montatu ondoren konposatu behar da musika,

eszena bakoitzerako. Astebetean aingin behar da dena. Aurretik ikusi gabe grabatu behar izaten da. Igandea arte partiturak ikusi gabe genituen», azaldu du Zeberio. Grabatzen ari ziren bitartean, filmaren irudiak ikusteko aukera zuen pan-

taila batean Juana Ros teknika-riak.

Iurreamendiko kaperaren oso egokia iruditu zaie bere sonoritateagatik eta emandako erraztasunengatik. «Estudioko soinua baino gehiago gustatu zaie teknikariei Iurreamendiko. Soinu naturalagoa lortu dugun», erantsi du zuzendariak. Martxoan orkestra honek kontzertu bat emango die bertan bizi direnei, eskertza modura.

Lehen ere film askotarako musika grabatu du Et Incarnatusen. Azkena, Juanma Bajo Ulloa zuzendari ezagunaren produktorarako, martxoan estreinatuko den *Fragil* filmaren aurretik joango den musika. Inauteri aurretik kontzertu go-goangarria eskaini zuen Leidorren, grabatu berri duten *Troika* diskoaren aurkezpena.

## AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Lorea Lampre Beloki (Alegia).

Gaur urtebete. Zorionak Aroetako alton-amon, izaba-osaba eta lehengusu Andoniren partetik.



URTE ASKOAN

Lorea Lampre Beloki

(Alegia). Zorionak. Larrosa politenari. Aitak, amaik eta Leyrek.



URTE ASKOAN

Garazi Dorronsoro Ipintza

(Zizurkil). Gaur 22 urte. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



AUPA ANDER

Isolamendu politikaren aurka borrokan hiru banda, ea laster den sagardotegian txobx egitekoa. Jo ta ke! Zentroko sorginak.



AUPA JULEN ETA PELLO

Ez dago gartzelarik euskaldunoi arrazoa kenduko digunik.

Zuekin gaude.

Villabonako ezker abertzalea.



**HITZA,**  
zorion argurren  
tartea

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 beheko  
TOLOSA  
Udalteko bulegoa  
LEITZA

Mesedez, argazkia bi  
egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**Sagarren hitza**  
hitzaren sagardotegia  
STOCKHOLM S taldea +  
bertsolariak, trikitalariak...  
otsailak 19, larunbata

**SARRERAK:**  
▶ 8 euro (afaria + sagardoa)  
▶ 5 euro (sagardoa)  
Afaria: saiheskiak, letxuga, gazta eta intxaurrak.  
Sagardoa: nahi adina, upeletatik.

**TXARTELAK HONAKO LEKUETAN:**  
▶ ZARAUTZ ▶ Hitzaren egoitza + Txiki-Polit  
▶ ZESTOA ▶ Koiote taberna  
▶ AZPEITIA ▶ Hitzaren egoitza  
▶ ZUMAIA ▶ Gaur eta bihar BALEIKERen azoka  
▶ GETARIA ▶ Mahasti taberna  
▶ ORIO ▶ Unar eta Kolon-txiki tabernak

**20:30etik aurrera**  
**ZARAUZKO**  
**MERKATU PLAZAN**  
(Komeni da txartelak  
lehenbailehen erostea)